

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 2021-16-10

Tokia: Online

Ordua: 17:00etatik 18:30etara

Bertaratutakoak:

Berritzegune: Natxo Hormaetxea

Tejido empresarial: Izaskun Rama

Eskuz-esku: Marta Ortiz

Bidea Eginez: Estibaliz San Sebastian

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

PSE: Mihaela Jilavu

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Paula Amieva

PP: Javier Elorza

EH Bildu: Arantza Gutierrez

Aisibizia: David Santamaria

Gizatiar: Marta Barrie

Presidencia: Carmen Diaz

Secretaría: Bego García

Bertaratu ez direnak:

Mujeres Con Voz

LAB

Moviendote Getxo

IEA

Gai-zerrenda

- E28 kanpaina.
- Emakumeen elkarteekin lan egiteko taldea.
- Berdintasun zerbitzuaren prozesuen inguruan informatzea.
- Galderak eta eskaerak

Aurreko akta onestea

Aurreko bilerako akta, 2020ko abenduaren 10ekoa, onetsi da.

E28 kanpaina - harrotasunaren eguna

Carmen Díaz berdintasun zinegotziak 2021eko 28 kanpainaren inguruko azalpenak eman ditu:

- Ekainaren 28an, 12:00etan, ekitaldi instituzionala udaletxeko harmailadietan.
- Zehazteke dagoen ekitaldi bat kalean.
- Udaletxean, Santa Claran, Muxikebarrin, San Nikolas liburutegian, Areetako Andres Isasin eta Bizkaia Zubian LGTBI bandera jarriko da. Ekainaren 21etik uztailaren 5era
- Modu berean, ekainaren 25etik uztailaren 2ra, Zugazarte hiribidea LGTBI banderaren koloreekin argizatuko da. Antzerako zerbait egingo da Portu Zaharreko, Alangoko eta Txakusolo-Ormaetxeko igogailuetan.
- Azkenik, hitzaldi-eztabaida bat antolatuko da Getxoko Elkartegian, hilaren 29an, 19:00etan.

Arantza Gutierrez EHBilduko ordezkariak adierazi du Udalak LGTBI eskubideen alde mota honetako ekimenak egitea kontraesankorra eta itxuratia iruditzen zaiola, aldi berean Portu Zaharreranzko jaitzieran mugimenduak margotutako horma-irudiak zentsuratzen dituelako. Berdintasun zinegotziak adierazi du gai hau batzordean jorratu dela jada eta Udalaren aldetik ez dela ez zentsurarik inposatu ezta modu horretan jarduteko inongo agindurik eman. Langile baten akatsa izan da, horma-

irudia pintada batekin nahasi duelako. Uxune Iriondo Bilgune Feministako ordezkariak galdetu du ea badagoen kasu hauetarako protokolorik; ez behargina zigortzeko, baizik eta motaren bateko formakuntza proposatzeko.

Emakumeen elkarteekin lan egiteko taldea

Bego García berdintasun teknikariak gogorarazi du aurreko berdintasun batzordean erabaki zela kontseilua eta berdintasun zerbitzua osatzen duten elkarten artean lantalde bat osatzea. Talde hau eratzeko helburuarekin, batzeko saiakera bat egin zen *doodle* aplikazioaren bitartez, baina ez zuen arrakastarik izan.

Elkarten arteko bilkura bat egiteko saiakera errepikatzea proposatzen du, 14:00etatik 16:00ak arteko ordutegia adostuz.

Berdintasun zerbitzuaren prozesuen inguruan informatzea

Berdintasun teknikariak une honetan berdintasun zerbitzuan gauzatzen ari den prozesuen berri eman du.

- **Indarkeriaren arloko koordinazio protokoloari** dagokionez. Protokoloa bukatuta dago eta arlo judizialarekin kontaktuan jarri ahal izatearen zain dago, sinatua izan dadin. Naiz eta sinatua ez egon, jada protokolo honekin ari da lan egiten.
- **Getxoko emakumezkoen eta gizonezkoen diagnostikoa** Kanpo-analisiarekin jarraitzen da, zeinen alderdi kuantitatiboa uztailan bukatuko da. Barne eta kanpo analisi kualitatiboak azaroan aurkeztuko dira.

Paula Amieva Elkarrekin Podemoseko ordezkariak diagnosi honi ekarpenak egiterik dagoen galdetu du: egokia ez dela erantzun zaio, datuak batzeko, azterketentzako eta ikerketentzako momentua delako. Eta berdintasun plana garatzeko prozesuan parte-hartzerako abagunea egongo da.

- **Ahalduntze eskola.** 2021-2022 ikasturterako ahalduntze eskolak 18 ikastaro/tailer eskainiko ditu guztira, eta hauetako 3 euskaraz izango dira. Urtero lez, eskari handia eta itxarote-zerrenda duten

horiek errepikatuko dira. Eskolako abesbatza-feminista talde egonkorra bilakatu da eta aurten bere ibilbideko hirugarren urteari ekingo dio.

EHBilduko ordezkariak euskaraz emango diren ikastaroen ratioarekin (18/3) desadostasuna adierazi du, baita horietan jorratuko diren gaiekin ere.

Bilgune Feministako ordezkariak azaldu du eskolan jende gazte gutxi parte hartzen duela, eta horren arrazoen inguruan hausnartzea proposatu du: tokia gaur egun ez dela erakargarria, beste mota batzuetako mugak, etab.

Berdintasun zinegotzia bat dator eskolaren gaur egungo kokapen fisikoa aldatu beharrarekin, Getxoko emakume guztien artean sortutako gune bat izan beharko litzateke, aniztasuna eta jatorrizko herrialdea aintzat hartuko dituen.

Galderak eta eskaerak.

- Elkarrekin Podemoseko ordezkariak batzordearen gai-zerrendan proposamenak sartu ahal diren galdetu du. Baietz erantzun zaio, erregelamenduak onartzen duela.
- EHBilduko ordezkariak adierazi die Getxok emakumeen etxe bat behar duela. Azpimarratu du urteetako aldarrikapen bat dela eta 2017an horrela adierazten duen prozesu bat egon zela. Adierazi du denbora asko igaro dela prozesu hartatik, eta emaitzak ikusi nahi dituztela. Berdintasun zinegotzia horren alde dago eta adierazi du jada hasi direla Getxon emakumeen etxe bat izateko urratsak ematen, martxoaren 8an etxearen inguruko jardunaldi batzuk egin zirela eta lanean ari direla.
- Bilgune Feministako ordezkariak galdetu du ea berdintasun zerbitzua dimentsionatu baden, teknikari bakarra nahikoa den prozesu guztiak bultzatzeko eta ea beharrezkoa den baliabideak areagotzea. Berdintasun zinegotziak erantzun dio baliabideak mugatuak direla eta politika-publikoen transbertsalitaterantz bideratu behar direla indarrak.

- Elkarrekin Podemoseko ordezkariak herritarrak deitu nahi ditu ekainaren 8an, astelehenean, 12:00etan egingo den ekitaldi instituzionalera. Proposamena jaso da.

Hurrengo batzordea 2021eko irailean.